

## FUNTZIONAMENDU ARAUAK

### Ospitalizazioko Unitatea – BARNE MEDIKUNTZA- ARRETA MEDIKO INTEGRATUKO ZERBITZUA (IMAZ)

#### Dei egiteko beharrea bazaude, ERABILI GELAKO TXIRRINA

- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeo unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduak edo lur gabeak.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

#### MEDIKUAREN IKUSTALDIA

- Osasun-langileek jarduera gehiena goizez egiten dute. Hori dela eta, gomendatze da bisitak 15:00etatik 22:00etara egitea
- Pazienteen atsedena errazteko, logelan ez da paziente bakoitzeko bi pertsona baino gehiago egongo.
- Batzuetan, gaixoei orientazioa galdu dezakete. Orduan laguntza behar dute istripurik saihesteko. Laguntzailea pazientearekin 24 orduetan egon daiteke.
- Ospitalean dagoenak ozenki hitz egitea eta pasilloetan geratzea saihestu behar ditu. Halaber, eskatzen da logelan ordena mantentzea, berokiak edo beharrezkoak ez diren beste objektu batzuk mahaitan ez utziz.

#### FAMILARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA



- Egunero, igandetan izan ezik, 10:00etatik aurrera.
- Inoiz ez da informazio klinikorik telefonoz emango.
- Pazienteak beste pertsona batzuei informaziorik ez ematea nahi badu, medikuari jakinarazi behar dio.
- Pazienteak ez du ospitaleratuta dagoen unitatetik alde egin behar, erreferentzako osasun-langileen baimenik gabe.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.

#### OTORDUAK



09:00h Gosaria  
13:00h Bazkaria  
17:00h Askaria  
20:00h Afaria  
Osasun langileek ezarriko dute  
pazientearen dieta

#### BISITAK

- 15:00etatik 22:00etara- Astegunetan
- 08:00etatik 22:00etara – Larunbat eta igandeetan
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**  
Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

#### BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).

#### LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA



- GARBITASUNA: Gomendatzen da sendatzea hobetzeko higie pertsonal on bat izatea.
- Osasun-langileek pazienteari lagunduko diote garbitzen, eta autonomia sustatuko dute.
- Gogoratzen da gelako komuna soilik pazienteentzat dela.
- Bisitarietako Unitateko komunak erabili ahal izango dituzte. Komun horiek sarreran dauden edari-janari makien aldean daude.
- Behar izanez gero, txirrina duzu osasun langileei deitzeko. Eskatzen da berau arduraz erabiltzea. GOGORATU pazienteen zainketek ezarritako ordutegia dutela.



**Ingresuko egiaztagiria** (enpresarako, oheburuko medikuarentzat edo familiartekoentzat), behe solairuan, sarreran, dagoen Harrerako Unitatean jaso daiteke.



#### SANTIAGO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007600

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000887. Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



#### KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.

Ate nagusiaren aurrean dago. Itxarongeletan kafeak eta freskagarriak ematen dituen makina batzuk daude.



#### OSPITALEKO ALTA: Mediku arduraduna da alta noiz eman behar den erabakitzen duena.

Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea. Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.

Anbulantzia eskatuko zaie ohean dauden eta behar duten pazienteei.

Eskatu osasun-langileei emateko ospitaleratzean zehar emandako medikazioa, txostenak, Sintrom orriak, etab.



#### ERLIJIO-ZERBITZUA

- Beheko solairuan -B Pabiloian KAPERA bat dago
- Erljio-laguntzako ordutegi berria 9etatik 17etara izango da egunero.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.

**PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ)** beheko solairuan dago. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (asteleheneetik ostegunera). **Gizarte-langilea:** 3. C solairuan dago.